

NEREA LOIOLA PIKAZA

ORHI EPELDE LOIOLA

# MUNSTROKAST

## DELUXE

® LIMITED EDITION




Ilustrazioak:

Iván Landa

AUKERATU ZURE  
ABENTURA  
+  
IHES-LIBURUA




ere in



HASI IRAKURTZEN!!!  
ZURE LAGUNTZA  
BEHAR DUT!!!

ZATOZ!  
ZATOZ  
NIREKIN!



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko maiatzean*

Azalaren eta liburuaren diseinua:

Iván Landa | Erein

Maketazioa:

Erein

Irudiak:

Iván Landa | Erein

© Nerea Loiola Pikaza

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-111-4

L. G.: D 274-2026

EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oñati

T 943 783 309

[gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)



# MUNSTROKAST

## DELUXE

® LIMITED EDITION

NEREA LOIOLA PIKAZA

Ilustrazioak: Iván Landa

*Aukeratu zure abentura + Ihes-liburua*



erein

*Euskara maite dutenei.*

*O.E.*

*Orhiri, bizitzari alde ederrenetik begiratzen laguntzeagatik.*

*N.L.*

# NOLA IRAKURTZEN DA LIBURU HAU?



## LIBURU HAU DESBERDINA DA.

Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago.


ZU zara protagonista.

Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi.

### ZER EGINGO DUZU?

Zauden tokian geratu eta berriz ere atea zabaltzen saiatu nahi badituzu, zoaz 90. orrialdera.

Tulerekin Keldruna basora joan nahi baduzu, zoaz 4. orrialdera.



ADI! Erabaki bat hartzen duzunean, beste orrialde batean jarraituko du istorioak.

ADI! Enigmak ebazterakoan lortzen duzun zenbakiak, abenturak zein orritan jarraitzen duen adierazten du.

Ausartuko zara?

Gertatzen dena gertatzen dela ere,

# ZORTE ON!



## Azkenean lortu duzu!

Atera zuten egunetik ez duzu beste ezer izan buruan: MUNSTROKAST bideojokoa. Lagunen ahotan ez dago beste gairik. Mundu guztia jolastu da jada.

Mundu guztia, zu izan ezik.

Gurasoei eskatu zenien. Ezetz. Garestiegia omen.

Urtebetetzetan, berriz saiatu zinen. Ezetz, oraingoan ere. Gazteegia zinela. Gazteegia, zu? Etengabe esaten dizute-eta handitzen ari zarela, ardura gehiago hartu behar duzula...

Baina, gaur, Olentzerok ekarritako opariak zabaltzen hasi zarenean, hor agertu da kaxatxoa. Papera presaka urratu duzu, bihotza pilpilka:

—Probatu dezaket orain? –galdetu duzu, hitzak elkartuz.


—Aurrena gosaldu –erantzun dizu amak.

—Ezzz... Meseeee!

—Ez gaituzu bakean utziko baietz esan arte, ezta?

Ez diozu erantzun. Bideojokoa piztu eta sofan eseri zara. Pantailan munstro txiki arraro bat agertu da:































Mandoaren  botoiari eman diozu, munstroak hizketan jarraitu dezan.

Onenen artean zaudela erakusteko, hurrengo enigma asmatu behar duzu.

# MUNSTROKAST

Enigma hau egoki ebazten baduzu, zenbaki bat lortuko duzu!  
Zenbaki horrek adieraziko dizu zein orrialdetan jarraitzen duen istorioak.

	<b>5</b>			<b>10</b>	
					
<b>25</b>		<b>11</b>		<b>91</b>	
					
	<b>42</b>		<b>51</b>		<b>105</b>
					

	
<b>?</b>	

Loguntza: 1. Aurkitu dezakezu eskuinteko karrituxoa ezkerrealdeko karritu handian?  
2. Eta karrituxoa biratzen baduzu?



4

## Tulerekin Keldruna basora joango zarela erabaki duzu



Zu korrika joango zinateke; Tule, ordea, pausoz pauso doa, dena bere tokian balego bezala. Noizean behin burua jiratzen du, jarraitzen diozula ziurtatzeko edo.

Aurrera egin ahala, belarraren berde argia berde ilunera aldatu da. Ohartzerako, baso baten ertzera iritsi zarete. Adaburu batean mezua azaldu da:





—Bai, ezta? –galdetu dizu Tulek, nahiz eta erantzunari itxaron gabe eman dion laukitxoari; eta basoan barneratu da.

Haren atzetik joan zara. Usain aratza du Keldruna basoak, isila da, eta koloreek distira handiegia egiten dute. Hostoak erritmo berean kulunkatzen dira denak, betiberdin, ezker-eskuin, ezker-eskuin.

Hartxintzar laukitxoz eginiko bide estu bati jarraitzen diozue. Bide bazterrean urrezko txanponak daude; Tulek ukitzen dituenean, plink! entzuten da eta desagertu egiten dira.

—Iritsi gara –esan dizu, azken txanpona poltsikoratu duenean.

—Eta 1. boterea?

—Bitbitbrunbian ezer ez da opari lortzen. Brintxel zuhaitza aurkitu behar duzu. Eta, zuk galdetu aurretik: ez dakit non dagoen.

—Ez dakizula?

—Ez... zehazki. Brintxel zuhaitz apetatsua da: batzuetan agertu egiten da, beste batzuetan ez. Baina agertu, bakarrik agertuko da bila bazabiltza.

Bidea utzi eta zuhaitz artean jarraitu duzue, enbor guztiei arretaz erreparatuz. Zerbaitez ohartu zara bat-batean:



%83

56





—Tule, nolakoa da Brintxel zuhaitza?

—Ez dakit, baina gertu gaude, haren boterea nabaritu dezaket.

—Adarra jotzen ari zara?

Tulek ezer erantzun aurretik, marru bat entzun da. Sasitzatik dator. Gerturatu zarenean munstro berde txiki bat ikusi duzu, sare antzeko batean harrapatuta. Begi handiak ditu eta karraskakarraska dabil bere sei hankatxoekin askatu nahian. Ikusi zaituenean, begira geratu zaizu. Errukia piztu dizu.

—Ez, denbora agortuko zaizu –esan dizu Tulek, pentsamendu irakurri izan balizu bezala. Azaleko arrakalak argiztatu zaizkio–. Amra nazkagarri bat baino ez da.

—Denbora-muga dago 1. boterea lortzeko?



8

Amra munstroari begiratu diozu berriro. Sareak gogor estutzen du, eta haren marruak gero eta ahulagoak dira.

Tule zuri begira erne dago, zer erabakiko duzun zain.



## ZER EGINGO DUZU?

**Amra munstroari lagundu nahi badiozu, zoaz 47. orrialdera.**

**Amra munstroa sasitzan utzita, Brintxel zuhaitzaren bila jarraitu nahi baduzu, zoaz 105. orrialdera.**